



ALMIRANTEAREN GOTORLEKUA A MAILA

ULIA



Deskribapena

Almirantearen gotorlekua –beste izendapen batzuekin ere ezaguna da, adibidez: Ingelesen gotorlekua, Morales gotorlekua edo Gurutzeen gotorlekua– Donostiako Ingeñariaren Komandantziak diseinatu zuen 1874-1875 artean. III. Karlistaldiaren gerra ingurunean eraikia da eta Donostiako 3. lerro liberalaren multzo gotortuari dagokio. Bertan, I. Karlistaldiko Moralesen gotorlekuaren elementuak egon daitezke azpian.

Almirantearen gotorlekua +208 kotan dago, Ulija mendiaren ekialdean, Mirakruzeko edo Labeaseko gotorlekutik gertu. Oinplano gutxi gorabehera karratua du, 37 x 38 m-ko aldeetakoa, eta behealdean 1,5 m-ko zabalera eta goialdean 3,5 m-koa duen babes hobiaz inguratuta dago. Babes hobiaren gainetik 3,5 m-ko altuera duen ezponda murru lodi batek sostengatutako lubetaz osatzen da asentu planoak. Murrua harlanduxkoz estalita dago kanpotik. Barne esparrua hegoaldeko babestuta dago lurrezko karela batez, eta iparraldean, batik bat, kuartelak okupatzen du.

Gotorlekuak bi artilleria asentu barne hartzen zituen: bata 3,5 m-ko erradioko harrizko zelaigune batek osatua (hegoaldeko karela mendebaldeko muturrean ezarrita); eta bestea 7 m-ko aldeko oinplano karratuko zurezko zelaigune batez osatua (gotorlekuaren hego-ekialdean kokatuta).

Barruan bost eraikin zeuden: tropa edo kuartelarentzako ostalua, oinplano angeluzuzenakoa, 20 x 5 m-koa, iparraldean gezileihoez hornitua, gotorlekuaren baitan zegoena; zaintzako garita; zerbitzu eraikin osagarriak; sukalde eta garbigelak; eta gotorlekuaren erdian kokatutako munizio hornitegia.

Gaur egun, multzoaren zenbait hondar geratzen dira eta, horietan, gotorlekuaren gela eta egitura batzuk antzeman daitezke.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra
Plan Berezi honen A babes mailan integratzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena
"Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- * Eragindako ingurunea: xedapen horietan ezarritakoa.